



BilboShop

B I L B O B I Z I



GURE BALIO PROPOSAMENA

GORKA PADILLA | JONE GALINDEZ | JON GALLEGO | IKER TAPIA



Proiektuaren eredua garatu dugu eta interneten dago erabilgarri, ezin dira erosketak burutu baina plataforma frogatu daiteke egitasmoa guztiz ulertzeko:

www.bilboshop.es





BilboShop

B I L B O B I Z I

Gure ideiaren jatorria

Gaur egun nagusitu dira enpresa handiak, azalera komertzial masiboak eta horrelakoak, merkataritza txikia ahulduz. Argi ikus daiteke nola bizitza osoan irekita egon diren denda tradizional eta txikiak itxiz joan dira, eta oso tristea iruditzen zaigu kalitatezko produktu tradizionalak eskaintzen duten dendekek itxi behar izatea.

Horri erreparatuz sortu zitzaigun **BilboShop** egitasmoaren ideia. Teknologia berrietaz baliatuz merkataritzako enpresa handiek erabiltzen dituzten estrategia komertzialak eta sortzen dituzten jendaurreko itxura korporatiboak Bilbo aldeko denda txikiei aplikatzea.

- Funtsean, denda txikiek eskaintzen dituzten kalitate estandarrak mantentzea eta askotariko baliabide teknologiko eta intelektualak erabiliz merkataritza txikia sustatzea.

BilboShop-en puntu nagusiak

Hurrengo orrialdeetan zehatzago azalduta dago gure proiektua, baina laburbilduz hurrengoak dira gure egitasmoak konponduko dituen arazoak:

- ✓ Bilboko denda txikiak internetera zabalduko ditugu:
 - Urrutiko online salmentak ahalbidetuz, eta beraz, dendei salmenta kanal berria irekiz fakturazioa igo.
- ✓ Dendarientzako beharbada zaila izan daitekeen ikuspuntu “berrituago” batetik marketing arloko aholkuak, denden itxura hobetzeko
- ✓ Marketing arloan jarraituz, aholkularitza zerbitzuaren bidez estrategia komertzialak eskaini dendariei
- Proposamen guzti horiek, dendariari lana errazteko asmoarekin beti, eta haien partetik lana beharrezkoa ez izateko lan eginez, online salmenten eta banaketaren kudeaketaren erantzukizun osoa hartuz.



BilboShop

B I L B O B I Z I

BilboShop proiektua zertan datzan

BilboShop Bilboko merkataritza txikia sustatzea xedetzat duen online plataforma da. Bilboko denda txikiak online panoraman leku bat hartzea ahalbidetuko du, **urrutiko salmenta zerbitzuak** eskainiz. Plataforma, funtsean, online denda bat izango da zeinek orrialde nagusi bat izango du. Bertan, plataformako denda eta produkturik esanguratsuenak bereiziko dira, baita harpidetutako dendek eskainitako hilabete bakoitzeko promoziorik inportanteenak ere.

Eskainiko dugun beste zerbitzu bat **aholkularitza** da, zerbitzu honen bitartez harpidetutako dendak aholkatuko ditugu **marketing** arloan haien jendaurreko itxura eta marka hobe dezaten. Horrez gain, eta marketingaren arlotik jarraituz, diseinu grafikoko zerbitzuak ere eskainiko ditugu, dendentzako logotipoak, publizitate materialak eta abarrekoak diseinatzeko.

Baita, denda bakoitzaren informazioa adierazteko eta haiekiko komunikazioa internetera zabaltzeko web pertsonalizatuak sortzeko zerbitzua ere eskainiko dugu, beti ere web horietan gure salmenta plataforma salmenta modu **bakartzat** implementatuz.

Gure balioa

Gure egitasmoa balio kualitatiboan oinarritzen da. Hau da, ez dugu prezioaren lehian oinarritutako zerbitzu bat eskainiko, baizik eta kalitatean oinarritutakoa. Gure zerbitzua besteengandik bereizia dago, eta hurrengoko balioak ditu oinarritzat:

Pertsonalizazioaren bidez, gure zerbitzuak bezeroaren beharretara egokituko dira, ahalik eta zerbitzu hobea eskaintzeko, eta bezero bakoitzak dituen behar zehatzak asetzeko.

Beste aldetik, bezeroei lana erraztea izango da gure zerbitzuen xedea, gure gain hartuko ditugun eginkizunak, bezeroen lana erraztuko dutelako haien negozioan bakarrik zentratu daitezen.





BilboShop

B I L B O B I Z I

Zergatik BilboShop?

BilboShop-en xede merkatu bakarra Bilboko merkataritza txikia da, eta area bakar horretan egiten du lan, eta hori, harpidetzen diren denentzat eksklusibotasun garantia bat da. Gure plataformak Bilboko dendekin bakarrik egiten duenez lan, erosle konkretuak bilatzerakoan askoz eraginkorrago egingo dugu lan, denda guztien xede erosleek **faktore geografiko** komuna dutenez gero, eta lan area txikituz ere, eraginkortasun handiagoa lortuko dugulako. Beraz, dendariak haien kabuz dagoeneko existitzen diren online plataformetan (eBay, Amazon, Rakuten, etab.) haien produktuak saltzeko aukera baztertu beharra dago, plataforma oso orokorrak direlako, eta ez direlako dendek xede merkatuarekin bat etortzen.

Horrez gain, gure zerbitzuak merkeak dira, dendarietzat errazak eta lan gehigarriak ez dute suposatzen, kalitatezko plataforma teknologiko batean oinarrituta, eta epe luzeko konpromisorik ez du suposatzen.

